**EUSKARAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERA ETA PROGRAMAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**ORDENANZA REGULADORA DE LA CONVOCATORIA Y DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA REALIZACIÓN DE DIVERSAS ACTIVIDADES Y PROGRAMAS RELACIONADOS CON EL EUSKERA**

ZIOEN AZALPENA

1998ko uztailaren 28an Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak xedatzen ditu herri erakundeen hizkuntza politikak datozen urteetan landu behar dituen helburu estrategikoak:

1.- Euskara ondorengoetaratzea: euskara belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratzea, bai familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze eta alfabetatzearen bidez, bai hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz.

2.- Euskararen erabilera: Euskarazko zerbitzuen eskaintza familia eta eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da.

3.- Euskararen elikadura: liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17. artikuluan xedatzen denez, beharrezkoa da udal diru-laguntzek beren oinarri arautzaileak izatea. Oinarri horiek aurrekontuaren exekuzio oinarrien markoan onartu beharko dira diru-laguntzen ordenantza orokor baten bidez edo diru-laguntza modalitate ezberdinetarako ordenantza espezifiko baten bidez.

Era berean, lege honek ahalbidetzen du oinarriekin batera deialdia ere sartzea.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Plan General de Promoción del Uso del Euskera aprobado el 28 de julio de 1998 por el Gobierno Vasco establece los objetivos estratégicos en los que debe centrarse la política lingüística de los poderes públicos los próximos años:

1.- La transmisión del euskera: la transmisión intergeneracional e ininterrumpida del euskera que se debe fundamentalmente a la familia, a la escuela y a la euskaldunización y alfabetización de adultos, además del enriquecimiento y mejora constante de la calidad de la propia lengua.

2.- El uso social del euskera: la prestación de servicios en euskera; es decir, la oferta de servicios en euskera debe ser la prolongación de la familia y de la escuela.

3.- El enriquecimiento de la lengua: a través de la producción cultural y los medios de comunicación.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones dispone en su artículo 17 la necesidad de establecer las oportunas bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales las cuales se deben aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Dicha norma legal permite así mismo que se incluya junto a las bases reguladoras la convocatoria.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

## I KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1.artikulua. XEDEA ETA DEIALDIA

Oinarri hauen helburua da euskalgintzan diharduten erakunde, talde edo gizabanakoei euskararekin zerikusia duten ekintzak eta programak burutzeko ematen zaizkien diru-laguntzak arautzea. Honako jarduerak izango dira diru-laguntza jaso ahal izango dutenak:

- Saltoki eta enpresen errotulazioa, web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak.
- Euskara ikastea
- EHUk euskaraz antolatutako udako ikastaroetan eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) emandako ikastaroetan esku hartzea

Urtero, Udalaren aurrekontuan xedatutakoaren arabera, Euskara Saileko Zinegotzi Delegatuak diru-laguntzetarako dagokion deialdia egingo du.

### 2. artikulua: ONURADUNAK

Oro har, diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte Ordenantza honetan zehaztutako alorrean jarduerak burutzen dituzten eta Errenterian errotutako pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

### 3. artikulua. BALDINTZAK

3.1.- Enpresa eta saltokietako errotulazioari dagokionean, honako baldintzak bete beharko dira:

## CAPÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. OBJETO Y CONVOCATORIA

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de ayudas económicas para la realización de diversas actividades y programas relacionados con el euskera a entidades, grupos o personas que actúen dentro de dicho campo. Se subvencionarán las siguientes actuaciones:

- Rotulación de establecimientos comerciales y empresas, creación de páginas Web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías.
- Aprendizaje del Euskera
- Asistencia a cursos de verano impartidos en euskera por la UPV y cursos de la Universidad Vasca de Verano (UEU).

Cada año, en función de lo determinado en el presupuesto municipal, el Concejal Delegado del Área de Euskera formulará la correspondiente convocatoria de subvención.

### Artículo 2.BENEFICIARIOS.

Con carácter general podrán optar a las subvenciones cuantas personas físicas o entidades jurídicas privadas radicadas en Errenteria realicen actividades en el área determinada en esta Ordenanza.

### Artículo 3. REQUISITOS

3.1.- Para la rotulación de establecimientos comerciales y empresas, deberán cumplirse los siguientes requisitos:



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

a) Zuzen idatzita egotea.

b) Diru-laguntza jaso ahal izateko, nahikoa izango da honako baldintzetako bat betetzea:

- Jarduera euskaraz jartzea, nahiz eta saltoki edo enpresaren izena gaztelaniaz egon.
- Jarduera idatzita ez agertzea baina establezimenduaren izena euskaraz egotea.

Errotuluan izena, abizena edo izen-abizena besterik agertzen ez badira, ez da diru-laguntzarik emango.

3.2.- Web orriak sortu eta teknologia berriei dagokienean, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Orriaren eduki guztiak euskaraz egotea. Horretaz gain, orria beste hizkuntza batean ere egon daiteke.

   Orriaren eduki guztieetan, hitzezkoetan zein irudi bidezkotan, euskarazkoetan zein gaztelaniazkoetan, hizkuntzaren erabilera bateratzailea egitea, hizkera sexixta baztertuz.

b) Ezinbestekoa da testua zuzena eta kalitatezkoa izatea.

c) Edukien artean legeak babestutakorik agertzen bada, eskatzaileak dagokion baimena edukitzea.

d) Web orria erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean .

a) El texto deberá estar correctamente redactado.

b) Para acceder a la subvención es suficiente cumplir una de las siguientes condiciones:

- Que la actividad aparezca escrita en euskera, aunque el nombre del establecimiento esté en castellano
- Que no aparezca escrita la actividad, pero el nombre del establecimiento esté en euskera.

En el caso de que en el rótulo se representen simplemente el nombre, apellido, o ambos, no se concederá la subvención.

3.2.-Para la creación de páginas Web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) El contenido estará en euskera. Esto no condiciona que también esté en otro idioma

   En todos los contenidos de la página, tanto de palabra como visuales, y en euskera como en castellano, se realizará un uso unificador de la lengua, dejando de lado todo uso sexista.

b) Son imprescindibles la calidad y la corrección del texto.

c) Si dentro de los contenidos aparecen temas legalmente protegidos, el solicitante deberá tener el permiso correspondiente.

d) En el momento en que se presente la solicitud deberá estar elaborado el texto de la página Web.

3.3 Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetarako diru-laguntzei dagokienean, honakoak izan daitezke onuradun bakarrak:

- Errenterian bizi direnak, eta bere lanbidea edo lanpostuarengatik hiritarrarekin harreman zuzena duten merkataritzako edo enpresako langileak, betiere komertzioak edo enpresak egoitza Errenterian duenean.
- Aipatutako kasu horietan gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna eduki beharko da.
- Asistentziaren %85 egiaztatu beharko da. Horretarako ikastaroaren hasiera data hartuko da kontuan. Asistentzia faltak zuritzeko legeak baimendutako kasuen egiaztagiriak baino ez dira onartuko.
- Euskalduntze-alfabetatzean gutxienez urrats bat gainditu beharko da.

3.4.- EHUk euskaraz antolatutako udako ikastaroetan eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) emandako ikastaroetan parte hartzeari dagokionean, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Errenterian erroldatuta egotea gutxienez eskaria egiten den aurretik sei hilabeteko antzinatasunaz.

4. artikulua BAZTERTZEAK

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren aipatzen diren jarduerak:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean aurkezten direnak.

b) Beren izaera eta helburuak direla eta

3.3.- Para subvenciones de aprendizaje de euskera por asistencia a cursos de alfabetización y euskaldunización, únicamente podrán ser beneficiarios:

- Los residentes en Errenteria, y el personal trabajador de comercios o empresas que tengan por razón de su profesión o puesto de trabajo relación directa con la ciudadanía, cuando el comercio o la empresa tengan su sede en Errenteria.
- En cualquiera de los casos se deberá tener una antigüedad mínima de seis meses.
- Se cumplirá con el 85% de asistencia. Para ello se tendrá en cuenta la fecha de inicio del curso. Para justificar la inasistencia, sólo se aceptarán los certificados de los casos autorizados legalmente
- Se superará como mínimo un nivel de euskaldunización-alfabetización.

3.4.- Asistencia a cursos de verano impartidos en euskera por la UPV y cursos de la Universidad Vasca de Verano (UEU). Deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Residir en Errenteria con una antigüedad mínima de seis meses anterior a la fecha en la que se hace la solicitud.

Artículo 4.EXCLUSIONES.

Quedan excluidas del ámbito de aplicación de la presente convocatoria las siguientes actividades:

a) Aquellas que concurran en alguna de las circunstancias previstas en el art. 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) Aquellas que por su naturaleza u objeto



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Euskara Ordezkaritzari dagozkion jarduera eremuekin zerikusi zuzenik ez dutenak.

c) Bere izaera eta helburuak direla eta, Udalaren beste arlo edo erakunde autonomo batzuek babestu beharrekoak badira. Dena den, dagokion erakunde edo udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

d) Konstituzioak 14.artikuluan jasotzen dituen eskubideen aurka doazen erakundeetatik datozen proposamenak ere ez dira aintzat hartuko (jaiotze, arraza, sexu, erlijio edo iritzia bezalako arrazoiengatik diskriminatzea).

e) "Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean (24 eta 25 art.) jasotakoak kontuan hartuta, ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan:

- Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

II KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

5.artikulua DIRUZ LAGUNTZEKO GASTUAK

Diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerakoak direnak eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 31.artikuluak dioenaren arabera.

no guarden relación directa con ninguno de los ámbitos de actuación atribuidos a la Delegación de Euskera.

c) Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos. En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

d) No serán consideradas las propuestas provenientes de entidades que conculquen derechos constitucionales, Art. 14 (discriminación por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión).

e) "Teniendo en cuenta lo establecido por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, (art. 24 y 25) para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no podrán ser beneficiarios de ayudas:

- Las personas físicas o jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, en tanto en cuanto continúe en vigor la correspondiente sanción.

CAPÍTULO II

CUANTÍA DE LAS AYUDAS

Artículo 5.GASTOS SUBVENCIONABLES.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases, de acuerdo con lo previsto en el art. 31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Saltoki eta enpresen errotulaziorako, web orriak sortu eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduueretarako, euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetarako eta EHUk euskaraz antolatutako udako ikastaroetan eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako ikastaroetan parte hartzeagatik ezarritakoetan bezala, oro har diru-laguntzaren kopuru osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen diru-laguntzak edo laguntzak batuta.

Con carácter general, y sin perjuicio de cuanto para las subvenciones en materia de rotulación de establecimientos comerciales y empresas, creación de páginas Web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías, asistencia a cursos de alfabetización y euskaldunización y asistencia a asistencia a cursos de verano impartidos en euskera por la UPV y cursos de la Universidad Vasca de Verano (UEU) se establece que, el importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Saltoki eta enpresetako errotulaziorako, web orriak sortzeko eta teknologia berriekin zerikusia duten jardueretarako diru-laguntzak honako hauek izango dira:

Las subvenciones en materia de rotulación de establecimientos comerciales y empresas, y creación de páginas Web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías serán las siguientes:

- Errotulazioa:

Establezimenduaren errotulua euskaraz badago, kostuaren %50, gehienez ere 300,00 euro.

Establezimenduaren errotulua ele-bietara badago, %25, gehienez ere 150,00 euro.

- Rotulación:

Si el rótulo del establecimiento está en euskera, hasta el 50% del coste hasta un máximo de 300,00 euros.

Si el rótulo del establecimiento es bilingüe, hasta el 25% del coste hasta un máximo 150,00 euros.

- Web orriak:

Web orriak euskaraz jartzeagatik koste horren %50eko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

Web orriak euskaraz/gaztelaniaz jartzeagatik koste horren %25eko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza, gehienez ere, 150 eurokoa izango da.

Ez da diruz lagunduko web orriaren mantenu lanik.

- Páginas Web:

Por la elaboración de la página Web en euskera se subvencionará hasta el 50% de dicho coste. La subvención no sobrepasará los 300 euros.

Por la elaboración de la página Web en euskera/castellano se subvencionará hasta el 25% de dicho coste. Dicho importe no sobrepasará los 150 euros.

No se subvencionará el mantenimiento de la página Web.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

- Hizkuntza paisaia:

Diruz lagunduko dira herritarrei zerbitzua euskaraz ematearren egiten diren inbertsioak, bai informatika mailan baita aplikazio eta teknologi berrietan ere. Diru-laguntza kostuaren %50 izango da, 300,00 euro gehienez ere.

- Paisaje lingüístico:

Se subvencionarán las inversiones en programas informáticos, nuevas tecnologías, aplicaciones, etc. que ofrezcan un servicio en euskera a los ciudadanos hasta el 50% del coste hasta un máximo de 300,00 euros.

- Euskalduntzea/alfabetatzea:

Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetara joateari dagokienean, gehienez honako diru-laguntzak emango dira, betiere kontuan hartuta urrats bakoitza behin besterik ez dela diruz lagunduko:

- Euskaldunización/alfabetización:

Para la asistencia a los cursos de alfabetización y euskaldunización se establecen las siguientes subvenciones máximas, teniendo siempre en cuenta que cada nivel se subvencionará una única vez:

a) Urteko ohiko ikastaroetan matrikulatzeko diru-laguntzak (egunero 2 edo 3 ordu):

- Matrikularen %25 diruz lagunduko da, betiere ikasturtean %85eko asistentzia bete eta gutxienez urrats bat gainditzen baldin bada.
- Matrikularen %25 euskalduntze-alfabetatzetik gainditutako urrats bakoitzeko.

a) Subvención de matriculación en cursos ordinarios anuales (2 ó 3 horas diarias):

- Se subvencionará el 25% del coste de la matrícula, siempre que en el curso escolar se cumpla el 85% de asistencia y se supere por lo menos un nivel.
- 25% de la matrícula por cada uno de los niveles de euskaldunización-alfabetización que se superen.

b) Barnetegi, ikastaro intentsibo eta autoikaskuntza ikastaroetarako matrikulen diru-laguntzak.

- Barnetegien kasuan, formazio gastuak soilik diruz lagunduko dira. Beraz, ostatu, mantenu eta garraio gastuak ikasleak ordaindu beharko ditu.
- Barnetegian, ikastaro intentsiboetan eta autoikaskuntzan gainditzen diren urratsak honela diruz-lagunduko dira:

**Urrats 1 = matrikularen %15**

b) Subvenciones de matriculaciones en Barnetegis, cursos intensivos y autoaprendizaje.

- En el caso de asistencia a barnetegis, la ayuda se concederá solamente para sufragar los gastos de formación, por lo que los gastos de alojamiento, manutención y traslados correrán a cargo del alumnado.
- En el caso de los *Barnetegis*, cursos *intensivos* y cursos de *autoaprendizaje* los niveles superados se subvencionarán de la siguiente manera:

**1 nivel = 15% de la matrícula**



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

**2 urrats = matrikularen %35**

**3 urrats = matrikularen %75**

**4 urrats = matrikularen %85**

*** Bost mailetatik aurrera, gainditutako maila bakoitzaren %5 diruz lagunduko da, gehienez ikastaroaren kostea ordaindu arte.**

- Ikastaro intentsiboak eta barnetegiak diruz-lagunduko dira bi hilabete edo bi hilabetetik gorako iraupena dutenean. Hilabete bakarra diruz-laguntzeko neguko ikastaroaren jarraipena izan beharko du

- Udako Euskal Unibertsitateak euskaraz emandako ikastaroetan esku hartzea:

Gehienez ere matrikularen kostuaren adinako diru-laguntza emango da. Aurrekontu kreditua baldintzak betetzen dituzten diru-laguntza eskaerek osatutako diru kopurua baino handiagoa baldin bada, soberakina alojamendua eta dietetarako erabiliko da.

III KAPITULUA

PROZEDURA

6. artikulua. ESKABIDEAK

Aurkeztutako eskari-orria eredu ofizialaren arabera idatziko da eta ondoko agiriak erantsiko zaizkio:

6.1.- Diru-laguntza establezimenduen errotuluetarako eskatzen bada, honakoak aurkeztu beharko dira:

a) IFZaren fotokopia.

b) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

c) Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena eman aurretik

**2 niveles = 35% de la matrícula**

**3 niveles = 75% de la matrícula**

**4 niveles = 85 % de la matrícula**

***A partir de cinco niveles, se subvencionará a razón de un 5% por cada uno de los niveles aprobados hasta el máximo del coste del curso.**

- Únicamente se subvencionarán los cursos intensivos y barnetegis cuando su duración sea igual o superior a dos meses. Se subvencionará un único mes cuando sea prolongación del curso de invierno

- Asistencia a los cursos impartidos en euskera por la Universidad Vasca de Verano:

Se subvencionará como máximo el coste de la matrícula. Si el crédito presupuestario es superior al total de las cantidades solicitadas que cumplen las condiciones, la diferencia se destinará para subvencionar el alojamiento y las dietas.

CAPÍTULO III

PROCEDIMIENTO

Artículo 6. SOLICITUDES

La solicitud que se presente se redactará de acuerdo con el modelo de instancia oficial junto con la siguiente documentación:

6.1.- Si se solicita ayuda para la rotulación de establecimientos deberá presentarse:

a) Fotocopia del NIF.

b) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

c) Documentación que acredite con anterioridad a dictarse la propuesta de



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

dokumentazioa aurkeztu behar du zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneraturik dagoela adierazteko.

d) Aurrekontua.

e) Errotuluan azaltzen den testua.

resolución de concesión que quien hace la solicitud se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

d) Presupuesto.

e) Texto que aparece en el rótulo.

6.2- Diru-laguntza Web orriak sortzeko edota teknologia berriekin zerikusia duten jardutetarako eskatzen bada, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) IFZaren fotokopia

b) Eskaria egiten duen erakundeak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

c) Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena eman aurretik dokumentazioa aurkeztu behar du zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneraturik dagoela adierazteko.

d) Aurrekontua.

e) Web orrian azaltzen den testua.

6.2- Si se solicita ayuda para la creación de páginas Web y actividades relacionadas con nuevas tecnologías deberá presentarse:

a) Fotocopia del NIF.

b) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

c) Documentación que acredite con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que quien hace la solicitud se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

d) Presupuesto.

e) Texto que aparece en la página Web.

6.3.- Euskalduntze-alfabetatzea

a) NANaren fotokopia.

b) Eskaria egiten duenak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

c) Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena eman aurretik dokumentazioa aurkeztu behar du zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneraturik dagoela adierazteko.

d) Matrikularen ordainagiriak (ordainketa epeka egin bada, ordainagiri guztiak aurkeztu beharko dira).

6.3.- Euskaldunización-alfabetización

a) Fotocopia del DNI.

b) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante.

c) Documentación que acredite con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que quien hace la solicitud se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

d) Recibos de matrícula (si el pago se realiza a plazos, deberán entregarse todos los recibos).



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

e) MERKATARIAK:Lanean gutxienez 6 hilabetez aritu izana ziurtatzen duen agiria, ikastaroaren amaieran aurkeztu beharrekoa (ekainaren 30a baino lehen), eta eskatzaileak enpresa edo saltokian betetzen dituen funtzioen ziurtagiria.

6.4- Diru-laguntza EHUk euskaraz antolatutako udako ikastaroetan eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) emandako ikastaroetan parte hartzeko eskatzen bada:

a) NANaren fotokopia.
b) Eskaria egiten duenak kontu korronte bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.
c) Diru-laguntza ematea ebazteko proposamena eman aurretik dokumentazioa aurkeztu behar du zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneraturik dagoela adierazteko.
d) Matrikularen ordainagiria.

Interesatuek hala aitortzen badute eta Errenteriako Udalak Oinarri hauetan eskatutako agiriren bat jaso duela adierazten badu, ez dute horiek aurkeztu beharrik izango.

Eskatzaileak eskatutako betebeharretan egunean dagoela adierazten duten agiriak aurkeztuko ez balitu, Udalari informazio hori eskuratzeko baimena ematen diola ulertuko da, eta horrela adieraziko du eskabidean.

6. artikuluan adierazitako dokumentazioaz gain, Udalak informazio eta dokumentazio gehiago eskatu ahal izango die pertsona fisiko nahiz entitate eskatzaileei aurkeztutako jarduerak hobeto baloratzeko.

e) TRABAJADORES DE COMERCIOS: Certificado que acredite seis meses de trabajo como mínimo y descripción de las funciones que desempeña la persona solicitante en el comercio o la empresa.

6.4- Si se solicita ayuda para asistir a los cursos de verano impartidos en euskera por la UPV y cursos de la Universidad Vasca de Verano (UEU)

a) Fotocopia del DNI.
b) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante.
c) Documentación que acredite con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que quien hace la solicitud se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.
d) Justificante de pago de matrícula.

Siempre que las personas interesadas así lo declaren y el Ayuntamiento de Errenteria tenga constancia de que alguno/s de los documentos solicitados en las presentes Bases se encuentran en poder del mismo, quedarán eximidos de presentarlos.

En caso de que el/la solicitante no aporte la documentación de hallarse al corriente en las obligaciones requeridas, se entenderá que el/la solicitante autoriza al Ayuntamiento para acceder a dicha información, y así lo hará constar en la instancia de solicitud.

Además de la documentación relativa a la actividad contemplada en el artículo 6, el Ayuntamiento podrá requerir a las personas físicas o entidades solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad presentada.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

7. artikulua. EPEAK.

- Saltoki eta enpresen errotulazioa, web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak

Saltoki eta enpresen errotulazioa eta web orriak egiteko eta teknologia berriekin zerikusia duten jardueretarako eskaerak aurkezteko epea urte osoan irekia mantenduko da.

- Euskalduntze/alfabetatzea

Euskara ikasteko diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea irailaren 1etik urriaren 15era izango da.

- EHUk euskaraz antolatutako udako ikastaroetan eta Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) parte hartzea

EHUk eta UEUn parte hartzeko eskariak aurkezteko epea, bat etorriko dira EHEUk eta UEUk berak matrikulaziorako ezartzen duten epearekin.

Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko eta eskaerak aurkezteko lekua:

- Errenteriako Udaletxeko Erregistroan, Herriko plaza, z/g. Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.
- Udaleko web orrian (www.errenteria.net) Udal Zerbitzu Telematikoen bitartez.
- Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992

Artículo 7.PLAZOS.

- Rotulación de establecimientos comerciales y empresas, páginas web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías

El plazo de presentación de solicitudes para la subvención de la rotulación de establecimientos comerciales y empresas, creación de páginas Web y actividades relacionadas con las nuevas tecnologías, estará abierto todo el año.

- Euskaldunización/alfabetización

El plazo de presentación de solicitudes para la subvención del aprendizaje del euskera queda establecido del 1 de septiembre al 15 de octubre.

- Asistencia a cursos de verano impartidos en euskera por la UPV y cursos de la Universidad Vasca de Verano (UEU)

El plazo de presentación de solicitudes para la asistencia a la UPV y UEU concidirá con la fecha de matriculación de ambos cursos.

Obtención de documentación, información y presentación de solicitudes:

- Registro General del Ayuntamiento de Errenteria, Herriko plaza, s/n. De lunes a viernes, de 8:00 a 14:00.
- Servicios Telemáticos Municipales de la página web del Ayuntamiento de Errenteria (www.errenteria.net)
- Por cualquiera de los medios previstos en el art. 38.4 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan.

Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común

Egiaztatzen bada eskatzaileak ez dituela aurkeztu oinarrietan eskatutako agiri guztiak edo ez dituela ezarritako baldintzak betetzen, interesatuari deituko zaio hamar laneguneko epean forma akatsak zuzendu edo derrigorrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartarazi egingo zaio hori egin ezean eskaria baliogabetu eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Cuando se compruebe que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámite, de acuerdo con la normativa vigente.

8. artikulua. PROZEDURA

Artículo 8. PROCEDIMIENTO

Diru-laguntzak emateko prozedura beti ofizioz hasiko da dagokion erakundeak deialdia egin ondoren. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

El procedimiento para la concesión se iniciará siempre de oficio, mediante la aprobación cada año por el órgano competente de la convocatoria, la cual se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Udal teknikariek aurkeztutako eskaerak informatu ondoren, Euskara Batzordeak ebaluatuko ditu eta egokiak diren ala ez informatu. Hori egin ondoren proposamena egingo dio Saileko Zinegotzi Delegatuari.

Las solicitudes presentadas en el Ayuntamiento, serán informadas por los técnicos municipales y posteriormente evaluadas por la Comisión Municipal de Euskera, que informará sobre su oportunidad, elevando la propuesta al Concejal Delegado del Área.

Aurkeztutako eskaera guztien eta horien dokumentazio osagarriaren azterketa konparatiboa egingo da.

Se realizará un estudio comparativo de las distintas solicitudes y documentación anexa aportada.

Interesatuei behin-behineko ebazpen proposamena, behar bezala arrazoitua, jakinaraziko zaie deialdiak zehaztutako eran, eta alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea emango da.

La propuesta de resolución provisional, debidamente motivada, deberá notificarse a los interesados, y se concederá un plazo de 10 días para presentar alegaciones.

Prozedurak hala jasotzen ez badu edo eskatzaileak aurkeztutako alegazio edo

Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

frogaz gain besterik ez badago, ez da beharrezkoa izango interesatuei entzutea. Kasu horretan, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por los interesados. En este caso, la propuesta de resolución formulada tendrá el carácter de definitiva.

Eskaerak erabaki eta jakinarazi egingo dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 24 artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitako eran eta epeetan.

Las solicitudes serán instruidas, resueltas y notificadas en la forma y en los plazos previstos en el art. 24 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Aurreikusitako epeetan diru-laguntzaren jakinarazpena ez jasotzeak adierazten du eskaerari ezezkoa eman zaiola, prozedura administratiboaren araudian ezarrita dagoen administrazioaren isiltasunaren arabera.

La falta de notificación de la resolución en los plazos establecidos podrá considerarse como denegación de las correspondientes solicitudes a los efectos de silencio fijados en la normativa sobre procedimiento administrativo.

Errenteriako Udalak argitara emango ditu onartutako diru-laguntzak, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 18.artikuluak xedatzen duenaren arabera.

El Ayuntamiento de Errenteria dará publicidad a las subvenciones concedidas en la forma prevista en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Oinarrietako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei diru-laguntza emateko nahikoa aurrekontu kredituritk ez badago diru-laguntza gutxituko da eta dagokion hainbanaketa bidez esleituko da diru-laguntza.

En caso de que no hubiera suficiente crédito presupuestario para atender a todas las solicitudes que cumplan los requisitos de estas bases, las subvenciones se concederán disminuyendo las cantidades, aplicando el correspondiente prorrateo.

9. artikulua. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Artículo 9. CUANTÍA Y ABONO DE LA SUBVENCIÓN.

Diru-laguntzaren kopuru osoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen diru-laguntzak edo laguntzak batuta, inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

El importe total de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Diru-laguntza jasotzeko, aurretik jatorrizko egiaztagiriak edo, hala badagokio, fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko

El abono de las subvenciones se hará previa presentación de los justificantes originales o, en su caso, de fotocopias compulsadas,



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

dira horien zerrendarekin batera. Horretaz gain, ondorengo agiriak aurkeztuko dira:

a) Egindako gastuaren justifikanteak (fakturak) eta horien zerrenda.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

Diru-laguntza eskaeraren eredua bete beharko da.

10. artikulua ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunaren betebeharrak hauek dira:

a) Helburua betetzea, egitasmoa burutzea, jarduera egitea edo diru-laguntza emateko arrazoiaren arabera jokatzea.

b) Egiaztatzea diru-laguntza ematen duen organoaren aurrean diru-laguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu dela eta helburua bete dela.

c) Diru-laguntza ematen duen organoak egingo dituen egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontrolerako organoek, nazionalek nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketen beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero diru-laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo gutxienez onartutako diru-laguntzari emandako aplikazioaren egiaztapena egin baino lehen.

e) Diru-laguntza onartzeko, proposamena

acompañados de una relación de los mismos, además de la siguiente documentación:

a) Justificantes del gasto realizado (facturas) y relación de los mismos.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

Deberá cumplimentarse el modelo de solicitud de subvención.

Artículo 10. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS.

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Acreditar con anterioridad a dictarse la



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

ebatzi baino lehen zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren aurrean eguneratuta dagoela egiaztatu beharko du, baita Errenteriako Udalarekin dituen zerga betebeharretan eta Errenteriako Udalaren Sozietate Publikoekin dituen ordainketetan ere.

propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y también hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Errenteria y al corriente de pago con las Sociedades Públicas del Ayuntamiento de Errenteria.

f) Eskura izango ditu: kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakiokeen merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita diru-laguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da.

f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) Jasotako diru-laguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak, Errenteriako Udalaren diru-laguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

h) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, esto es, la persona beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones que sean objeto de subvención por parte del Ayuntamiento de Errenteria.

i) Oinarri hauetako 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero jasotako dirua itzuli egin beharko du.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 13 de estas bases.

j) Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi beharko zaio.

j) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

k) Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantzaren 18.artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

k) Cumplir lo dispuesto en el artículo 18 de la Ordenanza Municipal para la normalización y fomento del uso del euskera en el Ayuntamiento de Errenteria.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

11. artikulua. EZ BETETZEA.

Oinarri hauetan edo diru-laguntza ematerakoan ezartzen diren bete beharrekoren bat ez betetzeak diru-laguntzaren berrikuspena dakar, eta hala badagokio, onartutako diru-laguntza baliogabetzea, gutxitzea edo itzuli behar izatea.

Gainera, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrean agertzen diren kasuetan, jasotako diru kopuruak itzuli egin beharko dira, eta diru-laguntza ordaindu den unetik itzulketaren bidezkotasuna adostu arteko epeari dagozkion berandutzako interesak eskatuko dira.

Onuradunak bere gain hartuko ditu udal arauak ez betetzearen ondorioak, arau horiek hirigintzakoak nahiz beste edozein arlotakoak izan.

12. artikulua. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofíziala), 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 9.3 artikuluaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabeturik geratuko dira Ordenantza honen edukiaren aurkako udal xedapen oro.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Artículo 11. INCUMPLIMIENTO.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes Bases o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El beneficiario asumirá, así mismo, las consecuencias citadas en caso de incumplimiento de normas municipales, tanto urbanísticas como de cualquier otra índole.

Artículo 12. CLÁUSULAS ADICIONALES.

Las presentes Bases serán publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (Boletín Oficial de Gipuzkoa), de acuerdo con el art. 9.3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogadas cuantas otras disposiciones municipales se opongan al contenido de esta Ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Ordenantzaren aldaketa hau indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren biharamunetik aurrera hamabost eguneko epean.

La presente modificación de Ordenanza entrará en vigor una vez transcurridos quince días desde el día siguiente a la publicación del texto íntegro de la misma en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



C.I.F. P-200720O-E Herriko plaza z/g • Tfnoa: 943 449606 - Fax 943 449656 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)